

Xabier Barredo kirol jertsearen diseinu irabazlea

2012/12/20

Irabazlea nor izan den esatea ez da inoiz erraza izaten eta kasu honetan ere horrela izan da. Azkenean, eta asko eztabaidatu ondoren, Xabier Barredo MGEP-eko ikaslea izan da Mondragon Unibertsitateko kirol jertsearen diseinu lehiaketaren irabazlea. Horrela erabaki du diseinuan aditu den batzordeak. Irudiak ederki betetzen dituelako eskatzen ziren baldintza guztiak: kirolarekin lotura izatea, sinpletasuna, Mondragon Unibertsitateko logotipoa diseinuan integratzea, kolore bakarrean izatea eta serigrafiazeko erraza izatea. Diseinuan azaltzen den "k" letrak "kirola mugimenduan" adierazten duela iritzi dio epaimahaiak, eskubiko marrek ikurrina irudikatzen dutela MU kokatua dagoen lurraldeari erreferentzia eginaz eta diseinuari dagokionean originala, sinplea, argia eta osoa delako aukeratu du Xabier Barredoren lana.

Estreinako aldia da Mondragon Unibertsitateko kirol jertsearen diseinua lehiaketara atertzen dela eta harrera oso ona izan du. Guztira 18 partaide izan ditu lehenengo edizio honek eta 47 diseinu aurkeztu dira, guzti-guztiakak kalitate onekoak. Hemen daude diseinu guztiak ikusgai.

MU Kirol Zerbitzutik eskerrak ematen dizuegu parte hartu duzuen guztioi, egindako lanak oso gustukoak izan ditugulako eta beste behin ere daukazuen sormen eta originaltasuna agerian geratu delako. Eta nola ez, zorionak Xabier Barredori ere, bere diseinua MUko ikasleek MU eta Euskadiko Unibertsitate-Kirol txapelketetan erabiliko diren jertseetan ikusi ahal izango duelako.

